

ERABAKIA, 2023ko AZAROAREN 10koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO (UPV/EHU) ZIENTZIA ETA GIZARTE GARAPENAREN ETA TRANSFERENTZIAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, IKERTALDE FINKATUENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIA EGITEKO DENA, GRADU AMAIERAKO LANAK, MASTER AMAIERAKO LANAK ETA DOKTOREGO TESIAK EGITEKO UNIBERTSITATE SISTEMATIK KANPOKO ERAGILEEKIN LANKIDETZAN

UPV/EHUren Estatutuen arabera, erakundearen helburuak dira: *Jakintza sortu, kritikatu eta zabaltzea eta jakintzaren aurrerabidea eta gizartearen garapena sustatzea, ikerketaren bitartez eta ikerketaren emaitzak gizarteratuz (1.a art.); Profesionalen etengabeko prestakuntza eta goi mailako irakaskuntza eskatzen duten gizarteko beste taldeen etengabeko prestakuntza edo bitzitza osoko prestakuntza sustatzea (1.e art.); eta Harremanak izatea eta hitzarmenak egitea erakunde publiko eta pribatuekin, UPV/EHUko tituludunen prestakuntza hobea izan dadin eta, ondorioz, lanean hasteko aukera gehiago izan dezaten (1.h art.).*

Zeregin horiekin bat etorritik, UPV/EHUK sustatzen ditu unibertsitate sistematik kanpoko eragile publiko zein pribatuekin lankidetzan eginiko Gradu Amaierako Lanak (GRAL), Master Amaierako Lanak (MAL) eta doktorego tesiak; bereziki, industria alorreko doktorego tesiak. Horri esker, lankidetzaren areagotu da UPV/EHUren, haren ikertalde finkatuen eta sailen, eta enpresen eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuen artean, bai ikerketarekin, garapen teknologikoarekin, berrikuntzarekin eta ezagutzaren transferentziarekin lotutako jardueretan, bai prestakuntzari dagokion guztian, izan etorkizuneko tituludunena edo master eta doktoregoko ikasleena.

UPV/EHUko ikertalde finkatuentzako 2023ko laguntzen deialdiak (GRALak, MALak eta doktorego tesiak egiteko unibertsitate sistematik kanpoko eragileekin lankidetzan) helburutzat du bultzatzea, garatzea eta sendotzea enprekin, klusterrekin eta erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzan eginiko irakaskuntza jardueraren horiek. Era berean, enpresekiko elkarlana indartu nahi du, industria tesiak sustatuta.

Horretarako, 110.000 € bideratuko dira guztira, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako Programa Kontratuan ezarritako finantzaketan oinarritzen den aurrekontu kredituaren arabera.

Horregatik guztiagatik, UPV/EHUren Estatutueta 197. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskumenak erabiliz (2011ko otsailaren 24, EHAA 38. zk.)

ERABAKI DUT:

LEHENENGOA.- UPV/EHUko ikertalde finkatuentzako laguntzen deialdia egitea, GRALak, MALak eta doktorego tesiak egiteko unibertsitate sistematik kanpoko eragileekin lankidetzan.

BIGARRENA.- Deialdia arautuko duten oinarriak onartzea (erabaki honi erantsi zaizkio).

HIRUGARRENA.- Deialdiaren eta haren oinarrien berri ematea UPV/EHUko ikastegiei eta atalei, eta UPV/EHUko Transferentzia eta Berrikuntzako web atarian (<https://www.ehu.eus/es/web/enpresa/home>) eta UPV/EHUren iragarki ohol korporatiboan argitaratzea.

LAUGARRENA.- Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari, hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko Transferentzia eta Berrikuntzako web atarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango da, Bilboko Epategietan, erabakia argitaratu eta bi hilabeteko epean.

Berraztertze errekurtsoa aurkezten bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri, lehenengoaren ustezko edo berariazko ebazpena izan arte.

Leioa, sinaduraren data

Guillermo Quindós Andrés
Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordea

UPV/EHUKO IKERTALDE FINKATUENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRIAK, GRADU AMAIERAKO LANAK, MASTER AMAIERAKO LANAK ETA DOKTOREGO TESIAK EGITEKO UNIBERTSITATE SISTEMATIK KANPOKO ERAGILEEKIN LANKIDETZAN

LEHENENGOA.- XEDEA

1.1- Deialdi honen xedea da UPV/EHUKo ikertalde finkatuei laguntzak ematea, unibertsitate sistematik kanpoko eragileekin lankidetzan eginiko Gradu Amaierako Lanak (GRAL), Master Amaierako Lanak (MAL) eta doktorego tesiak sustatzeko (2022-2023. urteetan defendatutakoak).

1.2- Deialdi honen xede diren jarduerak zehaztutako epean egin beharko dira.

1.3- Ezin izango da jarduera berari buruzko eskaerarik aurkeztu UPV/EHUKo deialdi batean baino gehiagotan.

1.4- Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako emandako laguntzekin, baldin eta gainfinantzaketarik ez badago.

BIGARRENA.- DOTAZIO EKONOMIKOA

Ezarritako helburua betetzeko, ehun eta hamar mila euro erabiliko dira guztira (110.000 €).

HIRUGARRENA.- EGITURA ONURADUNAK

3.1- Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte deialdia argitaratzean jardunean dauden UPV/EHUKo ikertalde aitortuek (Eusko Jaurlaritzaren GIC deialdia eta UPV/EHUKo GIU deialdia).

LAUGARRENA.- DIRUZ LAGUNDUTAKO GASTUAK

4.1- Laguntzak izango dira taldeen funtzionamendu gastuak ordaintzeko, bai eta taldeek antolatutako jarduerari zuzenean egotz dakizkiekeen gastuak ordaintzeko ere. Orientazio gisa, besteak beste, laguntzak izango dira 2. kapitulari dagozkion gastu hauetarako:

- Ekipamendu zientifiko edo bibliografiko txikia erostea.
- Material suntsikorra.
- Erreprografia zerbitzua.
- Ikertaldearen nazioartekotzea xede duten jarduerak.
- Bilerak eta ikastaroak,

Halaber, laguntzak izango dira 6. kapitulari dagozkion gastu hauetarako:

- Ikus-entzunezko baliabideak.
- Ekipamendu informatikoa.

4.2.- Inola ere ez dira diruz lagunduko honako gastu hauek:

- Ordainsariak eta kalte-ordainak Estatutu edo kontratu bidez UPV/EHUri loturiko pertsonen zerbitzuagatik, ezta bekadunen edo praktiketako ikasleen ordainsariak ere.

4.3.- Gastuak kudeatuko dira espezifikotasun hauen arabera:

- 4.3.1. Fakturek UPV/EHUn kontabilitate arauak beteko dituzte.

Gastu guztiak egingo dira indarrean dagoen araudiaren eta kontratatzeko eta erosketak egiteko UPV/EHUn ezarritako prozeduren arabera.

BOSGARRENA.- LAGUNTZEN ZENBATEKOA

5.1- Ikertalde bakoitzari esleitutako zenbatekoa proportzionala izango da deialdi honen xede diren jardueren balorazioan lortutako puntuazioarekiko.

SEIGARRENA.- ESKAERAK AURKEZTEA

6.1- Eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdi hau UPV/EHuko Transferentzia eta Berrikuntzako web atarian (<https://www.ehu.eus/es/web/enpresa/home>) eta iragarki ohol korporatiboan argitaratu eta hurrengo egunean.

6.2- Ikertaldeko arduradunak aurkeztu behar du eskaera. Gainera, pertsona hori arduratuko da ere laguntzari dagokion kredituaren organikoaren kudeaketaz.

6.3- Eskaera bakarra aurkez daiteke ikertalde bakoitzeko.

6.4.- Dokumentazio hau aurkeztuko da:

- Eskaera inprimakia, behar bezala beteta (l. eranskina).
- Unibertsitate sistematik kanpoko eragileekin lankidetzan eginiko GRAL, MAL eta doktorego tesien zerrenda (bereziki, tesi industrialak), ikertaldeko ikertzaileek zuzenduak eta 2022an eta 2023an defendatuak.

Unibertsitate sistematik kanpoko eragileekin lankidetzan eginiko GRAL, MAL eta doktorego tesi guztien ziurtagiriak (bereziki, tesi industrialak), ikertaldeko ikertzaileek zuzenduak eta 2022an eta 2023an defendatuak.

Eskabidearekin batera, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da, hura baliozkotu eta

baloratzeko.

6.5- Eskabide orria eta gainerako dokumentuak bidaliko dira Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzara, UPV/EHUren egoitza elektronikoaren bidez, honako hau idatzita gaian: *"UPV/EHUko ikertalde finkatuentzako laguntzak, GRALak, MALak eta doktorego tesiak egiteko unibertsitate sistematik kanpoko agenteekin lankidetzan"*.

6.6- Eskaerak aurkezteko azken eguna izango da 2023ko azaroaren 24a.

ZAZPIGARRENA.- ESKAERAN EGINIKO AKATSAK ZUZENTZEA

Aurkeztutako dokumentazioa aztertzean ikusten bada agiriak falta direla edo akatsak dituela, eskatzaileak 10 egun balioduneko epea izango du akatsak zuzentzeko edo falta den dokumentazioa aurkezteko. Hori egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta dagokion erabakia emango da.

ZORTZIGARRENA.- ADJUDIKAZIO PROZEDURA

8.1.- Balorazio batzordea. Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordea izango da eskabideak aztertu, ebaluatu eta balioesteko batzordeburua, eta kide hauek izango ditu batzorde horrek: Ikerketaren arloko, Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko eta Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordeak, edo horiek eskuordetzen dituzten pertsonak; Zientzia eta Gizarte Garapeneko zuzendaria, eta Transferentzia eta Berrikuntza IETB zuzendaria. Ikerketaren Emaitzak Transferitzeko Bulegoaren (IETB) arduraduna izango da batzordearen idazkari teknikoa, botoa emateko eskubiderik gabe.

8.2.- Balorazio irizpideak. Dirulaguntzen eskabideen ebazpen proposamena egiteko, balorazio batzordeak kontuan hartuko ditu irizpide hauek: ikertaldeko kideek kanpoko eragileekin lankidetzan zuzendutako eta baloratu beharreko aldiaren defendatutako GRAL, MAL eta doktorego tesien kopurua eta kalitate indizeak (kalifikazioa, ezohiko saria, hizkuntza aniztasuna, nazioarteko aipamena, "Industria doktoregoa" aipamena, etab.).

Irizpide orokorrak:

GRAL (1 puntu, gehienez 20 puntu)

MAL (3 puntu, gehienez 20 puntu)

Tesiak (5 puntu, gehienez 20 puntu)

9tik gorako puntuazioa GRAL eta MAL lanean (1 puntu)

Bikain cum laude tesian (1 puntu)

Ezohiko saria (3 puntu)

Nazioarteko aipamena duen doktoregoa (5 puntu)

“Industria doktoregoa” aipamena duen doktoregoa (10 puntu)

Euskaraz edo ingelesez eginiko GRAL, MAL eta doktorego tesia (1 puntu)

8.3- Batzordeak egoki iritzitako argibideak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei, eskabideak behar bezala baloratzen direla bermatzeko.

8.4- Adjudikazio proposamena:

8.4.1- Balorazio batzordeak 8.2. oinarriko irizpideen arabera aztertuko ditu eskabideak eta dokumentazioa, eta laguntza ematea edo ukatzea proposatuko du, bai eta laguntzaren zenbatekoa ere.

8.4.2- Balorazio Batzordeak UPV/EHUko Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordeari aurkeztuko dio proposamena, aktan jasoko dena.

8.5- Errektoreorde horrek informazio gehigarria eskatu ahal izango du, deialdiari buruzko erabakia hartzeko.

8.6- Adjudikazioa egingo da Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordearen erabaki bidez.

8.7- Emandako laguntzen behin-behineko erabakia argitaratuko da. Eskatzaileek bost egun balioduneko epea izango dute, proposamena argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, onartzen dutela edo uko egiten diotela adierazteko, edo egokitzat jotako alegazioak aurkezteko. Alegazioak oinarritzeko, eskatzaileak bere eskaeraren ebaluazio txostena eskatu ahal izango du, posta elektronikoki bidez: vrdesarrollotransferencia@ehu.eus.

Alegazioen dokumentua bidaliko da Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzara, UPV/EHUren egoitza elektronikoaren bidez, honako hau idatzita gaiari: “UPV/EHUko ikertalde finkatuentzako laguntzak, GRALak, MALak eta doktorego tesiak egiteko unibertsitate sistematik kanpoko agenteekin lankidetzan”. Adierazitako epea igarotzen bada alegaziorik aurkeztu gabe, onartutzat joko da behin-behineko erabaki proposamena, eta galdutzat hartuko da alegatzeko eskubidea.

Laguntzei buruzko Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren behin betiko erabakia argitaratuko da Errektoreordetzaren webgunean, eta erabaki indibidual bana bidaliko zaie eskatzaileei, posta elektronikoz.

8.8.- Erabaki indibidualaren aurka, berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango da, hilabeteko epean, aintzat harturik urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua.

8.9.- Era berean, aipatu erabakiaren kontra, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita.

8.10- Eskatzaileekiko komunikazioak egingo dira Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren posta elektronikoko bidez (vrdesarrollo-transferencia@ehu.eus).

BEDERATZIGARRENA.- EGITURA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi honetan araututako laguntzak jasoko dituzten ikertaldeen betebeharrak hauek izango dituzte:

- Jasotako laguntza deialdian ezarritako helburuetarako erabiltzea
- Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzak eskatutako dokumentazioa ematea, egoki iriztitako egiaztapen eta argibide guztiak egin dituzan, emandako laguntza behar bezala erabiltzen dela bermatzeko.
- Deialdian partzialki edo osorik lagundutako jarduera guztiek UPV/EHUn logo orokorra erantsiko dute beren argitalpen sistemetan, ahal den neurrian, eta laguntza aipatuko dute espresuki.

HAMARGARRENA.- LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

10.1- 2024ko aurrekontu ekitaldia amaitu eta gehienez ere 30 egun balioduneko epean, laguntzen onuradunek dokumentazio hau helaraziko diote Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzari:

- Eginiko jardueren eta emandako laguntzarekin eskuratutako ekipamenduaren memoria.
- Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko eginiko gastuak egiaztatzen dituen dokumentazioa (jatorrizko fakturen kopia, UPV/EHUn IFK adierazita: Q-4818001-B).

Dokumentazio hori bidaliko da Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzara, UPV/EHUn egoitza elektronikoaren bidez, honako hau idatzita gaian: *"UPV/EHUko ikertalde finkatuentzako laguntzak, GRALak, MALak eta doktorego tesiak egiteko unibertsitate sistematik kanpoko agenteekin lankidetzan"*.

10.2- Emandako laguntzaren edozein aldaketak Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren baimena beharko du.

HAMAIKAGARRENA.- LAGUNTZAK ORDAINTZEA

11.1- Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren adjudikazio erabakia argitaratu ondoren, organika bat irekiko da ikertaldeko arduradunaren izenean, eta organika horretara transferituko da 2023. urteko laguntzari dagokion zenbatekoa.

HAMABIGARRENA.- EZ-BETETZEAK

12.1- Deialdi honetan parte hartzeak berekin dakar oinarriak onartzea; beraz, laguntzen onuradun diren ikertaldeen nahitaez bete beharko dituzte oinarrien puntu guztiak, parte hartzeko eskabidea aurkezte hutsagatik.

12.2- Eskatzaileek deialdi honen betebeharrak betetzen ez badituzte, hurrengo urteko deialditik kanpo geratuko dira, eta itzuli egin beharko dituzte eman diren jardueretarako erabili ez diren zenbatekoak.